

# ENPRESEN konfiantza

2024KO 4. HIRUHILEKORAKO  
AURREIKUSPENAK

Ikerketa Departamentua – LABORAL Kutxa



LABORAL  
kutxa


# 2024KO 4. HIRUHILEKORAKO AURREIKUSPENAK



## 0 | INGURUNEA


LABORAL Kutxak Enpresen Konfiantzari buruzko Inkesta egin die Euskal Autonomia Erkidegoko hainbat enpresari, 2024ko laugarren hiruhilekorako dituzten aurreikuspenen berri izateko. Emaitzek erakutsi dutenez, aurreko hiruhilekoan baino apur bat negatiboagoa da ingurune ekonomikoa.

Zehazki, enpresen % 14,7k uste du egoera hobetu egingo dela oraingo hiruhilekoaren aldean; % 54,7k uste du bere horretan jarraituko duela, eta, beraz, % 30,6k, okerrera egingo duela.




# 1 | FAKTURAZIOA

FAKTURAZIOAri dagokionez, berriz, enpresek aldeko ikuspegia dute 2024ko laugarren hiruhilekoari begira (aurrekoarekin alderatuta). Zehazki, galdetutako enpresen % 31,3k uste du fakturazioa hobetu egingo dela; % 55,7ren iritziz, antzekoa izango da, eta % 12,9k okerragoa izango dela aurreikusten du.




## 2 | JARDUERA

JARDUERAk, berriz, 2024ko laugarren hiruhilekoan hobera egingo du % 23,1en iritziz, eta % 17,8ren arabera, okerrera. Lagineko gainerako % 59,1ak, beraz, berdin jarraituko duela pentsatzen du.




### 3 | ESKABIDEAK

Erantzunok ikusita, zalantza hau sortzen da berehala: zer portaera izango dute salmenten kopuruek eta prezioek, hau da, fakturazioaren eta jardueraren inguruko aurreikuspenen oinarrian dauden gakoek? Ildo horretan, eskabideek eta prezioek gora egingo dutela espero da. Ondorengo irudian ageri denez, inkestari erantzun diotenen % 29,2ren iritzian, eskabideen bolumena handitu egingo da, eta % 11,6ren ustez, txikitu. Enpresen % 59,2ren iritziz, ordea, bolumena hiruhileko honetakoaren antzekoa izango da.




## 4 | PREZIOAK

Era berean, PREZIOei dagokienez, honela banatzen dira emaitzak: enpresen % 17,1ek uste du igo egingo direla, eta % 78,7k, bere horretan jarraituko dutela.



## 5 | ERRENTAGARRITASUNA

Eragiketen ERRENTAGARRITASUNARI buruzko aurreikuspenei erreparatuta, erantzunen % 85,2ren arabera «txikiagoa» edo «berdina» izango da; enpresen % 14,8k soilik espero du etekin handiagoak lortzea.






## 6 | INBERTSIOA


Orain arte aztertutako datuek ikuspegi baikorragoa erakusten dute, aurreko hiruhilekoarekin alderatuta. Hala, jarraian ikusiko dugunez, badirudi enpresek berriro ekin dietela inbertsio-planei.

Inbertsio-bolumenari begira, enpresen % 17,6k uste du gora egingo duela **2024ko laugarren hiruhilekoan**. % 8,7ren iritziz, berriz, behera egingo du inbertsio-bolumenak. Hortaz, galdetutako enpresen % 73,7 inbertsioek berdin jarraituko dutelakoan dago.



## 7 | ENPLEGUA

Azkenik, enpresen % 84,6k erantzun du ENPLEGUAn ez duela aldaketarik espero; % 11,9k langile-taldea handitzeko itzaropena du, eta % 3,5ek guztiz kontrakoa aurreikusten du.




2024KO BESTE ADIERAZLE BATZUK



## 8 KONFIANTZA-INDIZEA ETA ESPORTAZIOEN BILAKAERA


Aurreko adierazleak —inguruneari buruzko iritzia izan ezik— gehitu eta haztatzen baditugu, 55,6ko konfiantza-indizea lortuko dugu. Hau da, aurreko hiruhilekoko baino handiagoa, 47,4koa izan baitzen. Beraz, enpresek ikuspegi baikorragoa dute ekonomiaren bilakaerari buruz, 2024ko laugarren hiruhilekoari begira. Indizearen balioa 50etik gorakoa izateak jarduera hedatzen ari dela adierazten du. Gainera, balioa handiagoa da beste eremu geografiko interesgarri batzuetan lortutakoa baino, adibidez Espainian —53,5eko datua lortu zen abuztuan— eta Eurogunean —48,9koa, irailean—.

Bukatzeko, inkestan jasotako beste gai batzuen inguruko emaitzak aurkeztuko dizkizuegu jarraian; ez dira aurretik azaldutako indizearen osagai. Azken urteko ESPORTAZIOen bilakaerari dagokionez, inkestatuen % 22k uste du hobera egin duela, eta, % 28ren iritzian, txarrera. % 50ek bere horretan jarraitu duela adierazi du.




## 9 BERRIKUNTZA ETA I+G ALORREKO EKIMENAK

Azken urtean BERRIKUNTZari edo I+Gko EKIMENEi bideraturiko salmenten ehunekoaren inguruan, inkestaturen % 62,9 balio minimoetan kokatzen da: Ezer ez eta % 1 artean. Bestalde, % 15,4k salmenten % 5 baino gehiago bideratzen du arlo horietara.




## 10 | BEZEROEI KOB RATZ EKO EPEAREN BILAKAERA

Inkestari erantzun diotenen % 82,8ren ustez, bezeroei KOB RATZ EKO EPEAn ez da aldaketarik egon azken urte honetan, eta, enpresen % 6,7ren esanetan, epea luzatu egin da. Hala, enpresen % 10,4k soilik erantzun du kobratzeko epea laburtu egin dela.



## 11 | BANKUEN FINANTZAKETA ESKURATZEKO ERRAZTASUNA

Amaitzeko, inkestaturen % 75,2k erantzun du BANKUEN FINANTZAKETA ESKURATZEKO AUKERAK berdin jarraitu duela azken urtean. Gainerako enpresen artean, % 14,8k dio hobetu egin dela, eta % 10ek, lehen baino zailagoa dela finantzaketa lortzea.






2024AN ADIERAZLEAK IZAN DUEN  
BILAKAERAREN LABURPEN-GRAFIKOA



## 12 ENPRESEN AURREIKUSPENAK

Grafiko honetan, aztertu ditugun azken 3 hiruhilekoetako aurreikuspenen adierazle partzialen eta osoen balioak ikus daitezke.



# Fitxa teknikoa eta metodologia

---

EAEko 400 enpresari egin zaie inkesta.

---